

ONDARROA. Epe luzera, kanpo portuan batuko ditue azpiegiturak

Altura eta baxurako arrain lonja proiektua onartu dabe

Eusko Jaurlaritza, Udala, alturako armadoreak eta arrain erosleak bat etorri dira

Lore Bengoetxea |

Ondarroako portuaren berrantolaketea erabagi dabe. Kanpo portua egin bitartean, alturako eta baxurako lonjak egingo ditue, epe motzera, Lesteko moilaren eta moila barriaren artean.

Portuaren berrantolaketeak hiru pauso eukiko ditu. Lehenengoa oraintxe gauzatzen hasiko dira, eta lonja izango dau ardatza. Lesteko moila luzatu eta moila horren eta barriaren arteko ura beteko dabe (lonja proiektu zaharrerako botaten hasi ziran harriak aprobetxatuta). Toki horretan, alturako eta baxurako lonjak ipiniko ditue.

Aurrerago, Kakalekutik hasi

eta barra puntaraino, portuko instalazioak jarriko ditue. Hirugarren fasean, kanpo portua egingo dabe, oraindino horretarako eperik zehaztu ez badabe.

Portuaren berrantolaketea erabagieran, bat etorri dira Eusko Jaurlaritza, Udala, alturako armadoreen alkateta eta arrain erosleak. Kofradiak, oraindino, Eusko Jaurlaritzagaz hartu-emonetan jarriatzen dau.

Lonjen gestinoan izan guran

Loren Arkotxa Ondarroako alkateak erabagiaren garrantzia nabarmendu dau, «urteetan portuko berrantolaketearen ganean egon diran eztabaidak bertan behera laga diralako eta etorkizunera begira pausoak emoteko konpromisoak hartu diralako».

Lonjen gestinoa publikoa izango da, «eta Udalak gestino

horretan parte hartu nahi dau». Arkotxak atzera begiratu dau, aurrera begiratu aurretik. «Etena egon da portuko jardueraren eta Udalaren artean; bien

arteko loturea berreskuratu egin behar da. Izan be, portua eta herria bat dira, eta danok hartu behar dogu parte portuko jardueran», adierazo dau.

Beste alde batetik, alkatearen

esanetan, portuarentzat diseinatu dan antolaketeak bide barriak zabalduko ditu bertako ekonomi jarduerari jagokonez. «Ondarroa herri arrantzale lez ezagutu izan dogu, eta hola izaten jarraituko dau, baina beste bide batzuetara be zabaldua egonda. Izan be, itsaso bidezko merkataritzaren bidetik be jo ahal izango dau antolaketa barriari esker, eta hori onuragarria da, gure herriarentzat zein ingurukoentzat».

AURRERA BEGIRA

Antolaketa barriari esker, itsaso bidezko merkataritzaren bidetik be jo ahal izango dau portuak



Tanbor hotsak euskaldunen aldarrikapenen alde

Domeka eguerdian, Ondarroako hiru ikastetxeetako ikasle, irakasle eta gurasoek eta herriko kirol taldeek tanborrada eskaini eben helburu bi zituela: *Guk geure eskolea* eta *Euskal selekzioari, bai*. Ume eta nagusi, euriari aurre egin, eta kalera irten ziran aldarrikapenekin bat etozala adierazoteko.

Ganera, Udaleko ordezkariak be ez zan falta izan, alkatea bera buru zala. Jai giroan, herriko kaleak zeharkatu zituen, ikusleen txalo zaparrada artean. Udalaren Kirol eta Hezkuntza batzordeak (ekimenaren antolatzaileak) pozik dagoz ekitaldiak jentearen artean lortu dauen erantzunagaz.

LEKEITIO. Selektibidadea danek gainditu dabe

Ikasturte amaierako ekitaldia antolatu dabe Iturriotz institutuan

L.B. |

Lekeitioko Iturriotz institutuak hainbat ekitaldi antolatu ditu, aurreko astetik, ikasturtea amaitzeko. Jai nagusia gaur izango da, eta bertan batuko dira ikasle, irakasle eta gurasoak.

Goizeko bederatzietatik aurrera, futbito txapelketea jokatu dabe lehenengo zikloko irakasleek eta bigarren zikloko ikasleek, eta pala partiduak guraso, ikasle eta irakasleek. Ganera, boleibol txapelketea be antolatu dabe.

10:00etatik 11:00etara, futbito finala, esku pelotea, hockeya, mahai jokoak eta saskibaloia egongo dira joan: 11:00etatik 12:00etara, boleiboleko finalak, mahai-jokoak eta erreleboak-ginkamea izango dira, danen gozamenerako; 11:00etatik 13:00etara, pintxo lehiaketea, eta ondoren, pintxo sari banaketea eta bazkaria.

Beste alde batetik, Iturriotzetik jakitera emon dabe-nez, institutuko ikasleen %100ak gainditu ditu aurtengo selektibidadeko frogak.

MARKINA-XEMEIN. Bost sari banatu ditue

Karmen jaietako kartel lehiaketako irabazlea aukeratu dabe

L.B. |

Markina-Xemeingo Karmen jaietako kartel irabazlea Yvonne Mendiberena izan da. Holantxe erabagi dau epaimahaiak. Horrezaz ganera, beste lau sari be emon ditue.

Yvonne Mendibek jaietako ekitaldi nagusiak jaso ditu kartelean, eta herriko elementu batzuk be bai. Holan, beste gauza batzuen artean, herri bazkaria, maskotea, Karmengo iturria eta alde zaharra aurtengo jaietako kar-

teleko elementu adierazgarrienetako batzuk baino ez dira.

Bigarren saria Nerea Rebueltarentzat izan da; hirugarrena, Mireia Joveiarrentzat eta laugarrena, Sara Arrietaarentzat. Txikien artean be lehiaketea antolatu dabe. Talde horretan, Eneko Arratek aurkeztutako beharra izan da onena.

Epaimahaia Elena Arrizabalaga, Olaia Aldazabal eta Florita Arrillaga margozailek eta Kultur batzordeko kide birek osatu dabe.

LEA IBARRA. Erein programan sartuta dagoz

Eusko Jaurlaritzak diru laguntzea emon dau baserriak apaintzeko

L.B. |

Eusko Jaurlaritzak baserrien kanpo apaintetarako eta barriketa beharretarako dirulaguntzak ipini ditu martxan. Barikuan Mendi Nekazaritza alkartera eroan zituen eskariak.

Erein programearen bidez emongo dira laguntzak, faxadak margotu, lorategiak landatu eta baserrien kanpo-ko apainteteagaz eta barriketeagaz zerikusia daukien beharrak egin ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak emongo dau dirua. Argitu dabenez, eskaitzaileak gehienez 1.200 eurotako behararen %75eko dirulaguntzea jaso ahal izango dau. «Beharren aurrekontua ez bada kopuru horretara heltzen, aitatutako ehunekoaren arabera laguntzea eskainiko da», azaldu dabe Lea Ibarreko Mankomunitadetik. Eskatzaileek konpondu nahi dan tokiaren argazkia eta aurrekontua aurkeztu behar izan ditue.